

OSO GUNEKO ERAKASKERA  
1996-97. IKAS URTEA.

ELHEKETA: HASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA.

1. Xirriparen berriak agertu zirene?
2. Haren baldarrez zer egin zuten jendek?
3. Zertako Dihurzibehere medikua ez zuen nahi nehor hartu bere karrosan?

PIARRES

II MARIA ZAHARRA 7

Xirriparen egiazko berriak ez da sekulan agertu. Diote batzuek Ameriketarat ihes egin zuela. Baina, luzaz eta luzaz, Xirripaz baizik ez zen nehor mintzo. Batek hemen ikusi, bertzeak han. Zinez ikaretan zauden bazter guziak, eta Menta zenak, berriki orduan horri jaun erretorak, orai oraino han den alimaleko burdinmarra emanarazi zuen bere athe handiaren gibelean. Ilhunaz geroz, ez zen gathurik ere ageri Senpereko karrikan, eta, igande arratsetan, ez zen segurki erretira jotze beharrik, jendearen etxerat igortzeko.

Egia edo gezurra, diote oraino, handik laster. Dihurzibehere mirikua, bide-zaharrez, Zirikolatzeke parrean, gau batez karrosan heldu zelarik, serora bat kausitu zuela bidean. Karrosarat igaita serorak galdeginik, baietz onhartu omen zion mirikuak. Baina, bere puska batzu Serorak eman nahi izan zituclarik karrosan, Dihurzibehere jaunak gizon-esku batzu ikusi ziozkan delako serorari. Burdin-harrabots bat gero puska lek eginik karrosa zolan, izitu zen gure jaun mirikua, eta zaldia finki azotaturik, ez zen toki hetarik nahi baino lasterrago urrundu. Zapartaka Senpererat heldu zenean eta Seroraren puskak miatu zituenean, kanit, puñal eta pixtoletik baizik ez zuen kausitu oihalaren barnean... Egun hartarik harat, ez omen zitzaion karrosan tokirik galdatu behar Dihurzibehere mirikuari. Jaun aphezpikuari berari ezetz erranen zion eta"!...

Ixtorio izigarria Mariak bururatzean, han zirenak oro ixil ixila gelditu ziren, Maria bera ere ixilik zagon. Guzien gogoak han zabiltzan Saran, Molerescenean, Zirikolatzen.

4. IZAN - Régime Indirect. Indic. Imparfait.

Hura Zen = Il <u>était</u>	Zu zinen = Vous <u>étiez</u> .
Hura (lui) Zitzaitan (à moi) = Il m' <u>était</u>	Zu (vous) Zintzaitzitan = } (à moi) = Vous m' <u>étiez</u> .
" Zitzaitzun (à vous) = Il vs <u>était</u>	" Zintzaitzizun = } (à vous) = Vous vs <u>étiez</u> .
" Zitzaitzun (à lui) = Il lui <u>était</u>	Zu (vous) Zintzaitzizun = } (à lui) = Vous lui <u>étiez</u> .
" Zitzaitzun (à nous) = Il nous <u>était</u>	Zu (vous) Zintzaitzizun = } (à nous) = Vous nous <u>étiez</u> .
" Zitzaitzun (à vous) = Il vous <u>était</u>	Zu (vous) Zintzaitzizun = } (à vous) = Vous vous <u>étiez</u> .
" Zitzaitzun (à eux) = Il leur <u>était</u>	Zu (vous) Zintzaitzizun = } (à eux) = Vous leur <u>étiez</u> .

ADITZ IKASKUNTZA

- |                  |                   |
|------------------|-------------------|
| 31. Diote        | 32. Onhartu zion  |
| 33. Ziozkan      | 34. Amen zitzaion |
| 35. Ixilik zagon | 36. Zabiltzan.    |

31. ERRAN - Indicatif Présent. Conj. forte

Nik diot	= Je dis
Hik diok/n	= Tu dis
Zuk diozu	= Vous dites
Harek dio	= Il dit
Guk diogu	= Nous disons
Zuek diezue	= Vous dites
Heiek diote	= Ils disent

32. UKAN = Conj. à dble eplt. Indic. Imparfait

Obj. Sing.	Hari = à lui -- C. Indic. Sing.
Nik nion	= Je le lui avais
Zuk zion	= Vous le lui aviez
Harek zion	= Il le lui avait
Guk gion	= Nous le lui avions
Zuek zioten	= Vous le lui aviez
Heiek zioten	= Ils le lui avaient

33. UKAN. Conj. à dble eplt. Indic. Imparfait

Obj. Pluriel	Hari = à lui - C. Indic. Singulier
Nik niozkan	= nizkion = Je les lui avais
Zuk ziozkan	= ziozkion = Vous les lui aviez
Harek ziozkan	= ziozkion = Il les lui avait
Guk giozkan	= giozkion = Nous les lui avions
Zuek ziozkatzen	= ziozkioten = Vous les lui aviez
Heiek ziozkatzen	= ziozkioten = Ils les lui avaient